

205. ALDIZKARIA - 2016ko urriaren 24a

Barañaingo Udalak, 2016ko abuztuaren 25ean egin osoko bilkura arruntean, legez ezarritako quoruma zuela, erabaki zuen hasiera batean onestea Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Kontseilu Sektorialaren antolaketa eta funtzionamenduaren gaineko erregelamendu berria.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluan xedatuari jarraikiz, erabaki hori 2016ko 171. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 5ean, baita Barañaingo Udalaren ediktu oholean ere.

Jendaurrean egoteko legezko aldia iraganik inork inolako alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe, eta aipatu foru legearen 325.1.c) artikulua bukaerako aginduen ondorioz, erregelamendua behin betiko onetsizat jotzen da, eta haren testu osoa argitaratuko da, behar diren ondorioak izan ditzan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluari jarraikiz.

Argitara ematen da aipatu agindua betez, eta ohartarazten ezen honako erabaki honen aurka –xedapen administratibo orokorra baita– ezin dela administrazio bidean errekurtsorik paratu; hortaz, behin betiko onespen honen aurka ondoko bideren bat erabiltzen ahalko da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzenean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 10.1.b) artikuluari jarraikiz, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Barañainen, 2016ko urriaren 14an.–Jarduneko alkatea, José Ignacio López Zubicaray.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO KONTSEILU SEKTORIALAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUAREN GAINEKO ERREGELAMENDUA.

ZIOEN AZALPENA

Emakumearen parte-hartzea gizartean handitu egin da azken hamarkadetan. Aurreratu egin da berdintasunaren arloan emakumeen eskubideen aldeko borroka eta esparru horretako kontzientziario eta prestakuntza lanari esker, hala ere asko dago egiteko oraindik.

Desberdintasunak oztopatu egiten du emakumeen garapen osoa eta haien eskubidea bizitza oso eta gozagarria bizitzeko. Egoera horrek emakume guztiei eragiten die, modu desberdinean, bizitzaren arlo eta aro guztietan. Hortaz,

aurrerapenak gertatzen diren arren, aurrera egin beharra dago benetako berdintasunerantz.

Guztion zeregina da emakumeen eskubideen alde lan egitea. Eskubide horiek eskuratzeak ekarriko du egiazko justizia soziala.

Barañaingo emakumeen bizi kalitatea hobetzeko xede argiarekin, abian jarriko dira herriko emakumeen egiazko egoera ezagutzeko mekanismoak, beharrezko neurriak hartuko dira eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak eta zerbitzuak ezarriko dira.

Agiri honek Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Kontseilu Sektorialaren antolaketa eta funtzionamenduaren gaineko erregelamendua proposatzen du, Barañaingo Udalaren partaidetzarako organo gisa, eta bere azken helburua da, adostasunez, Berdintasunaren esparruko politikak eta proposamenak garatzea, betiere zeharkako esparru gisa eta Udalaren jarduketa eremu guztietan kontu hartu beharrekoa izanik.

1. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunareko kontseilu sektorialaren legezko oinarriak.

A.–13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa. Aipatu Lege horrek bere II. tituluko II. kapituluan, ahalmen eta eskumenen mugaketa, 44.18 artikulua, ezartzen du Nafarroak besteren artean eskumen hauek dituela:

–Komunitatearen garapena; emakumearen aurrerabideak; haur, gazte eta hirugarren adinekoen aldeko politika.

B.–7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

Legearen lehenbiziko tituluan, 1. artikulua, xedatzen da udalak direla estatuaren lurralde antolamendurako oinarrizko entitateak eta herritarren ekinbide hurbilenak arazo publikoetarako, eta bertan instituzionalizatzen eta kudeatzen direla, autonomiarekin, giza-taldearen interesak. Kasu honetan emakumeak izanen genituzke giza-talde horietako bat.

4. artikuluko A) puntuan udalari erregelamendua egiteko eta autoantolatze ahalmena ematen zaio.

IV. kapituluan (informazioa eta herritarren partaidetza), 69. artikulua hurrengo hau xedatzen du: “Toki korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emanen dute beren jarduerari buruz, eta herritarrek herriko gorabeheretan parte hartzeko bidea erakutsiko. Bere burua antolatze ahalmenak erabiliz partaidetza modu, baliabide eta prozedurak, ezin izanen dute legeak araututako ordezkari organoak dagozkien erabakitzeko ahalmenak eragotzi”.

C.–Toki Korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2658/1986 Errege Dekretua.

IV. tituluan, Lurraldeko toki erakundeen antolaketa osagarria, lehenbiziko kapitulua, 6. sekzioa, organo osagarriak, kontseilu sektorialak, 130. puntua, bada han aipatzen da kontseilu sektorialak ezarri behar direla, herritarren eta herritarren elkarteetan partaidetza bideratzeko udal aferetan. Txosten eta hala badagokio proposamen eginkizunak izanen ditu soilik, kontseilu bakoitzari dagokion jarduera alorrei buruzko udal ekimenekin zerikusia dutenak.

Kontseilu sektorialen osaketa, antolaketa eta jardun-eremua kasuan kasuko osoko bilkuretan ezarriko dira.

Esparru honetan kokatzen da Barañaingo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala, udal politikaren jardunetik sortua, emakumeen eskubideen alde eta berdintasunaren aldeko elkarteetan eta kontseiluko ordezkari politikoen partaidetzarekin, izan ere, udalek daukate ahalmena beren burua antolatu eta gisa horretako kontseiluak sortzeko.

2. artikulua. Izaera eta xedeak.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala emakumeen ordezkariak antolatzeko, eztabaida eta komunikazioa sustatzeko eta partaidetzarako esparru bat sortzeko organoa da, Berdintasunaren arloan Gizarte Ongizateko Batzordearen esku utzitako zereginetan.

Horren ildotik, Kontseilua organo aholku-emaile gisa eratzen da, emakumeen ahalduz, desberdintasuna prebenitzera, eta emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna eragozten duten oztopoak desagerraraztera bideratutako jarduna duten pertsonen eta elkarteekin bertan informatu, proposatu eta parte har dezaten.

3. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialaren kideak.

1.–Barañaingo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialak hurrengo hauek izanen ditu kide:

a) Kontseiluko burua, alkatea edo hark eskuordetzen duena izango dena.

b) Kontseilukideak:

–Barañaingo Udalaren udal talde bakoitzaren ordezkari bana.

–Legez eraturako eta Barañaingo Udalaren elkarteetan erregistroan inskribaturako emakumeen elkarte bakoitzaren ordezkari bana.

–Berdintasunaren defentsan jarduten dutela frogatzen duten Barañaingo elkarteetan ordezkari bat.

–Berdintasuneko teknikaria.

–Berdintasunaren alorra lantzen duten administrazio publikoetako ordezkari bat.

c) Kontseiluko idazkaria, hizpidea duena baina botorik ez: Barañaingo udalaren berdintasunaren alorrari atxikitako gizarte langilea.

Atal honetan aipatzen diren elkarteek honako baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatu beharko dute:

–Beren helburuen artean sartzen dela emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasunaren aldeko defentsan jardutea, hizkera ez-sexista erabilita.

–Irabazi asmorik ez dutela.

–Barne egitura eta funtzionamendu araubide demokratikoak dituztela.

–Barañainen aritzen direla.

Administrazio publikoetako ordezkariak, ordezkari politikoak eta elkarte guztiek kontseiluburuari jakinaraziko dizkiote kontseilukide izateko bereizi dituzten ordezkarien izenak, baita beren ordezkoak ere:

Osoko bilkuran onespenez erabakia hartu eta hilabeteko epearen barrenean eratuko da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala.

2.–Kontseiluko kideen izendapena, norberak duen kargua dela medio direnena izan ezik, kontseiluburuak egiten du, aurreko artikuluko honetako 1.b) atalean aipatzen diren entitateen proposamena eta gero, halakorik bada.

3.–Berdintasunaren inguruko elkarteak, entitateak eta erakundeak ordezkatzeko dituzten kideen kargualdiak udal agintaldi bakoitzak bezainbeste iraunen du.

4.–Orobat, arrazoi hauetakoren batengatik utziko zaio Kontseiluko kide izateari:

a) Berariaz uko egiten denean.

b) Kargualdia bukatzen zaionean. Dena dela, kide berriak karguaz jabetu arte, aurreko kideek beren eginkizun guzti-guztiak betetzen segituko dute.

c) Kontseiluan aritzeko bidea eman dion ordezkariak galtzen duenean.

d) Erregelamendu honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez duenean.

Postu hutsak betetzeko, erregelamendu honetan izendapenak egiteko adierazitako prozedura berbera erabiliko da.

Kargualdia bukatzeagatik ez beste edozein arrazoiengatik uzten bada kargua, sartzen den kide berria Kontseilua uzten duen kidearen kargualdia bukatu arte arituko da.

4. artikulua. Eginkizunak.

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialaren eginkizunak:

–Barañaingo emakumeen egoera aztertu eta egiazko diagnostikoa egitea.

–Berdintasunaren alorra atxikitzen den Batzordearen irizpide eta jardueraren planak ezagutu eta horren berri ematea, bere helburuak lortzeko beharrezkoak jotzen diren

neurriak proposatuz eta zehazki alorraren planak eta aurrekontuak onartu baino lehen entzunak izatea.

–Berdintasunaren alorraren funtzionamendu eta kudeaketa urteko memoria ezagutu eta horren berri ematea eta etorkizuneko jardura eta berauen finantziarioari buruzko egoki ikusten diren proposamenak egitea.

–Batzordeari proposatzea behar diren neurriak, ekimenak edo proposamenak har daitezzen bi sexuen arteko berdintasuna sustatzeari eta emakumeak jardura politiko, kultural, ekonomiko eta sozialean parte hartzeari dagokionez.

–Kontseiluari bereizkeriazko egitateak izan direlako salaketak iritsiz gero, horiek bildu eta bideratzea, baldin eta behar bezala oinarriturik badaude eta berdintasuneko printzipioa hautsi badute edo emakumeak gutxietsi badituzte.

–Komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatzea antzeko helburuak dauzkaten beste administrazio batzuetako entitate eta organoekin, bai eta udaletik kanpoko beste elkarte batzuekin ere.

–Kontseiluan ordezkatuak ez dauden pertsona eta erakundeek sustatuko ekimenak ezagutu eta horren berri ematea.

–Barañaingo emakumeekin egiten diren jardueretan parte hartzea.

–Gizarte babesa eta sustapenerako Barañainen egiten diren jardueretan emakumeen partaidetza sustatzea.

–Herrian aukera berdintasun planean jasotzen diren helburu eta jardueren jarraipena egitea.

–Berdintasunari buruzko jarduketa proposamenak egin eta Barañaingo Udalari bidaltzea, hala behar denean, eta gizarte jarduketako esparru horrekin lotutako erakunde, instituzio eta entitate publiko eta pribatuei.

2. Kontseiluko kideen eginkizunak hauek dira:

–Kontseiluburua:

- Kontseiluko ordezkarari eta buruari izatea.
- Kontseiluko bilkurarako data finkatu, deia egitea eta bertan buruari izatea.
- Bertan eztabaidatuko den gai zerrenda ezartzea.
- Eztabaidak zuzendu eta moderatzea.
- Bilkurak bertan behera uztea, horretarako arrazoiak daudenean.
- Kontseiluko kide titular izaera onestea.
- Kontseiluko kide izaera galtzea onestea.
- Idazkaritza teknikoak luzatzen dituen ziurtagiriak ikus-onetsiarekin baimentzea.
- Kontseiluaren erabakiak bete daitezzen begiratzea.
- Kontseiluaren funtzionamendurako araudia bete dadin begiratzea.
- Udalari edo beste edozein instituzio edo entitate publiko zein pribatuari igorriko zaizkion proposamen edo txostenak sinatzea.

–Idazkaria:

- Parte-hartzaile berrien partaidetza eskaerak jasotzea.
- Kontseiluan landu beharreko gaietan kontseiluko kideei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzea.
- Kontseiluaren bilkuretarako deia egitea, kontseiluburuak hala aginduta, eta kideentzako zitazioak egitea.
- Gai zerrenda eta bilkuren akta idaztea.
- Aurreko aktaren irakurketa eta onespren proposamena.
- Hurrengo bilkuraren gai zerrendarako eztabaidarako iradokizunak jasotzea.
- Batzorde tematikoak osatzea bultzatzea.
- Batzordeetan egin beharreko lanaren jarraipena egitea.

–Kontseilukideak:

- Berdintasun planari buruzko gaiak jakinarazi, eztabaidatu, aztertu, kritikatu, aurkeztu eta proposatu.
- Gai zerrendan azaltzen diren gaiez eztabaidatzea.
- Eskakizun eta beharrak adieraztea.
- Kontseilua eta beren xedeak beren jarduera esparruei edo nazio kolektiboari jakinaraztea.
- Barañaingo jendeak egiten ahal dituen proposamenak bideratu eta kontseiluko gainontzeko kideei jakinaraztea.
- Beren jarduera esparruei onartutako edo errefusatutako proposamen edo neurriak jakinaraztea.
- Neurri eta proiektuak proposatzea Udalaren organo eskudunari, horrek onets ditzan.
- Hurrengo gai-zerrendan sartzeko gaiak proposatzea.

5. artikulua. Funtzionamendua.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektoriala, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 2. tituluko II. kapituluan eta 2568/1986 Errege Dekretuko 130. eta 131. artikuluetan xedatutakoarekin bat arautuko da, bere funtzionamenduari dagokionez.

a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako kontseilu sektorialak bilkura arrunta eginen du hilabetean behin gutxienez, eta bilkura berezia kontseiluburuak dei egiten duenean edota kideen herenek hala eskatzen dutenean.

b) Kontseiluko kideez gain, bilkuretara joan ahalko dira, hizpidea izanik baina botorik gabe, kontseiluburuak egoki iruditzen zaizkion bertze pertsona batzuk, landuko diren gaietan adituak badira.

Ohiz kanpoko izaeraz, berdintasunerako kontseilu sektorialak bilkura arruntean hartutako erabakiaren bidez, herritarrendako bilkura irekiak (batzarrak) deitu ahalko dira, horreterako bide egokiak erabili eta gai zerrenda ezarriko da.

c) Kontseilua balio osoz eraturik geldituko da, hartara agertzen direnean, lehenbiziko deialdian, kideen erdiak gehi bat, edota bigarren deialdian kideen herenak.

d) Bilkuran dauden kideen gehiengo soilaren bidez hartuko dira erabaki guztiak. Emakumearen Kontseiluari atxikitako elkarte edo talde politiko bakoitzak boto bat izanen du, alde batera utzita talde horietako bakoitzetik zenbat kide joaten diren bilkurara.

Berdinketa gertatuz gero, kontseiluburuaren botoak erabakiko du.

e) Deialdia erabaki eta bilkura baino 2 egun baliodun lehenago bederen, presako kasuetan izan ezik, eta deialdiarekin batera eguneko gaien zerrenda bidaliko da.

f) Bilkura bakoitzaren akta idatziko da, honako hauek bertan paratuta:

–Bilkurara joan diren pertsonak.

–Gai zerrenda.

–Bilkuraren tokia eta denbora.

–Eztabaidatu diren gairik garrantzitsuenak, nor mintzatu diren aipatuta.

–Bozketaren gaia eta emaitza.

–Erabakien edukiak.

g) Aktaren kopia bat, dagokion dokumentuekin batera Barañaingo Udalera igorriko da (dagokion zinegotzigoari, Berdintasunaren alorrari atxikita dagoen batzordeari), hartutako erabakien jarraipena ahalbideratzeko.

h) Kontseiluak bidezkozat jotzen badu, lan-batzorde edo taldeak era daitezke, haren eskumenekoak diren gaiei buruz, edota bilkuretara etortzeko dei ditzake udaleko beste kide batzuk.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Baliogabetu egin dira Erregelamendu honi kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta bereziki hurrengoak:

–Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Barañaingo Kontseilu Sektorialaren antolaketa eta funtzionamenduaren gaineko erregelamendua, Barañaingo Udalak 2007ko uztailaren 26ko osoko bilkuran behin betiko onetsia. 2007ko 106. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 27an.

AZKEN XEDAPENA

Indarra hartzea

Erregelamendu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.